Este relato de nuestra experiencia no incluye todos los matices, debates, experiencias compartidas, desencuentros, abrazos o conflictos. Muchos temas que aún polarizan o generan posiciones enfrentadas, sobre el perdón, la reconciliación o la impunidad son parte de los temas pendientes también en la sociedad. Pero hemos avanzado en la escucha, el conocimiento, el respeto, el reconocimiento de lo sufrido, de la dignidad de las víctimas y de los derechos compartidos. Este relato es un testimonio de nuestro proceso. El puzzle de personas y vivencias que constituye la realidad de nuestra sociedad no está roto. Tiene muchas fracturas pero creemos, por el enorme impacto que hemos padecido, por nuestra experiencia, que se puede recomponer con lo que cada pueda aportar para acercar las piezas.

GLENCREE EKIMENA: GURE ESPERIENTZIA PARTEKATUA

Jarraian kontakizun bat azalduko dugu. 2007ko abendutik hona, indarkeria politikoaren eta jatorri desberdineko terrorismoaren biktimen artean elkartzeko eta eztabaidatzeko esperientzia bat gauzatzen ari gara eta esperientzia horren berri eman nahi dizuegu kontakizun honen bidez.

Nor gara?

Ezaugarri jakin batek batzen gaituen pertsona multzo bat gara: esandako ekintzek eragindako sufrimendu bidegabe ikaragarria pairatu izanak, pertsonalki eta/edo gure senitartekoei gertatutakoagatik, eta egoera horrek guztiak gure bizitzan eta gure familien bizitzan izan dituen ondorioengatik.

Gure arteko batzuen senar, aita edo senideak bahitu, torturatu eta erail zituen GALek edo antzeko beste erakunderen batek; beste zenbaiten senar, aita edo senideak, berriz, ETak bahitu, torturatu eta erail zituen. Beste pertsona batzuek jazarpen-indarkeria jasan dute eta beste hainbaten senitartekoak torturatu edo hil egin dituzte poliziaren jardunean.

Guztiok gara giza eskubideen urraketen biktima, indarkeriak eragindako urraketen biktima, Euskal Herrian; biktima desberdinak eta egile desberdinenak. Gure taldeak ez du identifikatzen gaituen izenik, baina «Glencree ekimena» erabili ohi dugu, gure lehen bileren lekuko izan zen Irlandako tokia gogoratu nahirik. Bizi genuen indarkeria giroa eta polarizazioa zela eta, Euskaditik kanpora joatea erabaki genuen geure buruez hitz egiten hasteko; egunerokotasunetik irtetea ahalbidetzearekin batera, behar genuen diskrezioa eskainiko zigun testuinguru batera.

Urte hauetan guztietan, elkartrukeak egin ditugu, isiltasunean; elkarri entzuten eta elkarrekin hitz egiten saiatu gara, gizarteak ezer jakin gabe eta bertan inolako eraginik izan gabe. Elkartzeko eta eztabaidatzeko prozesua bizi izan dugu, prozesu zaila eta hunkigarria, baina bakea eta indarkeriaren amaiera lortzen laguntzeko gure ekarpena egin nahi genuen, prozesu horren bitartez. Orain, esperientzia hori eta prozesu horren kontakizuna jasota gera dadin nahi dugu.

Gure esperientziaren hastapenak

2007ko irailean, Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak denok elkartzeko proposamena egin zigun, jatorri desberdineko indarkeriaren biktimen artean hitz egiterik ba ote zegoen eta, horretarako, zertan oinarritu ikusteko: alde batetik, ETaren eta gisako taldeen terrorismoaren biktimak geunden, eta, bestetik, GALen eta beste zenbait talderen terrorismoaren biktimak. Bilera hori Irlandan egin zen, Glencree izeneko herri batean; izan ere, Ipar Irlandako gatazka zela-eta, bakerako zentro bat sortu baitzuten bertan. Testuinguru positiboa eta urrunekoa behar genuen, inolako publizitaterik gabeko ekimena izango baitzen, diskretua, eta gertu-gertukoei baizik ez genion eman horren berri. Beste pertsona batzuen esperientzia ezagutzera gindoazen, hainbat gairi buruz hitz egitera; esate baterako, biktimen

definizioari eta eskubideei buruz eta, bereziki, elkar aitortzarako eta ordaintzarako premia eta aukerei buruz.

Bilera profesional talde batek diseinatu eta koordinatuko zuen: Carlos Martin Beristain, Galo Bilbao eta Julian Ibañez de Opacua. Talde Dinamizatzailea (TD) deitu izan diogu ekipo horri prozesu osoan, nahiz eta garai hartan oraindik ez genuen inor ezagutzen. Bagenekien, hainbat egunetan, jende desberdinarekin egongo ginela, baina ez genekien ez zenbat bilduko ginen, ez nor izango ginen, ez bestelako xehetasunik ere. Ezin genion ezer esan inori baina erronka hori guztiok onartu genuen, jakin bagenekielako diskrezioa oinarri-oinarrizko baldintza zela parte-hartzaile guztion aldetik.

2007ko abenduan hasi zen Glencree esperientzia. Esperientzia positiboa izan zen eta, ondorioz, guk geuk proposatu genuen jende gehiagorengana iritsi behar genuela, betiere esperientzia gauzatzea ahalbidetu zuten diskrezio-baldintzei eutsita. 2008ko abenduan, antzeko beste talde bat elkartu zen; baina kasu horretan, ETArekin biktimek hartu zuten parte, Euskal Herritik kanpokoek. Prozesu horiek amaitu eta, geroago, beste hainbat bilera egin ostean, gure esperientzia zabaltzea eta beste biktimak mota batzuk gonbidatzea garrantzitsua zela ikusi genuen. Hala, 2011ko maiatzean, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzaren laguntzarekin orduan ere, hirugarren talde bat elkartu zen eta oraingoan, polizia-jardunak eragindako mehatxatu, torturatu eta biktimak ere etorri ziren. Palentziako Santa María de Mave herrian bildu ginen zenbait egunetan. Esperientzia horien ostean, hiru taldeek bilera bat egin genuen elkarrekin eta guztiok batera lan egin nahi genuela erabaki genuen, proiektua aurrera ateratzeko. Une garrantzitsua izan zen hura. Beste parte-hartzaile asko ezagutu genituen han: batzuk gure herrikoak ziren, beste batzuk atentatuaren albisteetatik ezagutzen genituen, beste zenbait erabat ezezagunak zitzaizkigun, baina nor ziren eta han zergatik zeuden jakin ahala, ez ziren jada hain ezezagun. Bilera horretan garbi geratu zen talde moduan lan egin nahi genuela, helburu komun batzuen alde. Helburuetako bat dokumentu bat idaztea zen; hain zuzen ere, esperientzia honen berri emango zuen dokumentua, elkarrekin partekatutako bizipenak eta ikaskuntzak bilduko zituen, eta guztiok geure burua bertan identifikatuta ikusiko genuena.

Dokumentu honen bitartez gure esperientzia islatu nahi genuke. Lerro hauetan hiru esperientziak konbinatu ditugu, guztiok batzen gaituena bildu dugu, betiere, guztiok barne hartzen gaituen neurrian, eta irakurleentzat irakurtzeko eta partekatzeko erraza izatea espero dugu; horixe da gure nahia.

Hasierako urratsak

Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak (BLZ) proposamen hau egin zigunean, gehientsuok ez genuen horrelakorik espero. Gutariko askorengana ez zen inoiz inor etorri zer moduz ginen galdetzeraz, gertukoak ez baziren, eta are gutxiago guk esateko genuena eta biktimen bizipenak entzuteraz, errespetuan eta elkarrizketan oinarritutako giro batean. Askotan, duela hogeita hamar urte gertatutako egoerak ziren; beste zenbait kasu, ordea, gertatu berri-berriak. Gonbidapena jaso genuenean, harridura, ezustea, ikusmina eta mesfidantza-ukitu bat ere sortu zen gutako batzuen artean.

Kasu askotan, Maixabel Lasa eta Txema Urquijorekin lehen bilera bat egin genuen, zer nahi zuten azaltzeko. Haien asmoen berri eman ziguten eta joango ziren pertsonen ezaugarriei buruzko zerbaitek ere bai, baina ez izenik, ezta bileraren bestelako xehetasunik

ere. Horrekin soilik emozio asko piztu ziren, baita lasaitua hartu ere. Gonbidapena onartzea erabaki genuen, egoera aldatzeko zerbait egin nahi genuelako, indarkeria amaitzeko, elkarbizitza eta memoria berreraikitzeke zerbait egin behar zela uste genuelako.

Baina erronka berri bati aurre egin beharko geniola ere bagenekien: gure esperientzia partekatu beharko genuen sufrimendu bidegabea pairatu zuten pertsona batzuekin, baina kontuan izanda, guregandik oso bestelako jarrera politiko eta ideologikoak izango zituztela; beraz, samina, amorrua, mesfidantza eta diferentziak prozesatu beharko genituen hainbat egunez elkarrekin egoteko eta, garrantzitsua eta ezinbestekoa iruditzen zitzaigun lanari guztiok batera ekiteko. Senitartekoei eta gertuko jendeari ideia komentatu genien eta babes handia eman ziguten; beti sentitu izan dugu haien babesa lan hau egiteko garaian.

Esperientzia hasi aurretik nekez irudika genezakeen nolakoa izango zen. Jarrera onean gindoazen guztiok, baina ez genuen elkar ezagutzen. Bestalde, eztabaida eta ezberdintasun politikoen eta jarrera pertsonal desberdinen ondorioz, gerta zitekeen elkarrekin ongi ez moldatzea. Gutariko zenbaitek, lehendik, «beste aldeko» indarkeriaren biktimak ezagutu nahi genituen; haiekin egon nahi genuen, elkarrekin eseri eta haien kontakizunak entzun. Gutako askorentzat, aukera hori pentsaezina zen. Ez dugu ahaztu behar oso talde heterogeneoak osatzen genituela. Guztira 27 lagun bildu gara, 16 emakume eta 11 gizonezko, guztiok Euskadin eta Nafarroan bizi eta lan egiten dugunak, bi pertsona izan ezik, Estatuko beste erkidego batzuetan bizi baitira. Pairatu genituen gertaera terroristak oso denbora-tarte luzean gertatu ziren: 1970. urtetik hasi eta ia gaur egun arte, jazarpen-indarkeriaren biktimen kasuan.

Gure bileren prozesua

Hasiera ez zen erraza izan; tentsioa sumatzen zen, elkar agurtu, eta hantxe geratzen zinen. Lehen sentsazioa zen jende erabat ezezaguna zenuela aurrean; ez zenekien nola jokatu zuten, ezta zer erreakzio izango zuten ere zu ezagutzean edo zure historia entzuten zutenean. Jarrera ona bazegoen ere, egoera oso arraroa zen; beldurra eta errespetua ere sumatzen ziren, zama astun bat eramatearen antzeko zerbait. Hastea oso zaila egin zitzaigun guzti-guztiori. Batzuek, ordea, elkar ezagutzen zuten. Han zeuden BLZko kideak, eta biltzeko deialdia egin zutenean haiekin harremanen bat izan zutenentzat hasierako une haiek errazagoak izan ziren.

Zenbait izen eta aurpegi ezagunak ziren komunikabideetan atera zirelako, edo ekitaldiren batean parte hartu zutelako edo agian herrikoak zirelako, baina, oro har, ez genuen elkar ezagutzen. Pertsona horietako batzuekin elkartzean, errespetua sentitu genuen, baina baita beldurra ere. Ez genekien geuk nola erreakzionatuko genuen ere. Sufrimenduaz hitz egitea mingarria da, eta ezezagunen aurrean hitz egiteak beldurra areagotzen du. Barru-barruko gauzak, saminak, esperientzia negatiboak, familian izandako eraginak edo gizartearen bazterketa aipatzea ez da batere erraza. Urduritasuna ezkututzen saiatzen ginen, ez genekielako zer gertatuko zen, ez geure burua nola ikusiko genuen ere.

Talde Dinamizatzaileko (TD) kideak hortxe zeuden; ia inork ez zituen ezagutzen baina hiru lagun horiek harrera atsegina eta goxoa egin ziguten, eta hori lagungarria izan zen, konfiantza eman zigun; batzuk eta besteak aurkeztu gintuzten eta babes sentsazioa eman

ziguten. Bidaietan giroa apur bat lasaitu zen. Bidaiatzean ondoan dugunarekin hitz egiteko joera izaten dugunez, arian-arian elkar ezagutzen hasi ginen, gainerakoei begiratu eta nortzuk ote ziren asmatu nahian ibili ginen; ez genekien zer aurkituko genuen eta horri buruz pentsatzean beldur izan ginen. Lehenengo inpresioa garrantzitsua da eta bidaietan apurka-apurka lasaitu egin ginen, jendeak atsegina zirudien eta pixkanaka irekitzen hasi ginen. Bidaia bera egunerokotasunarekin apurtzea izan zen, baita esperientzia komun baten hasiera ere.

Helmugara iritsi, ostatu hartu eta hurrengo egunean talde-bilerak hasi ziren. Beste ezer baino lehen geure burua aurkeztu genuen eta atentatuena, mehatxuen, torturen edo bestelako indarkeria moten ondorioz gure senitartekoei edo geuri gertatutakoa azaldu genuen. Erreparatu handiko unea izan zen, zeure barrualdea ireki eta barru-barruko NANA, sufrimenduarena, erakustearen pareko. Nekeza izan zen, urduri geunden; zenbaiten kasuan lehen aldia zen horretaz mintzo zirela eta guztiontzat oso zaila izan zen hain barruan gordetako hori, hainbeste samin eragin duen hori kanporatzea. Hasteko, gure esperientziak partekatu genituen: atentatuak, atxiloketak, mehatxuak... Azken batean, sufrimendua baitzen guztiok batzen gintuena.

Hitz egin eta entzun: samina, errespetua eta enpatia

Prozesu zaila da hori. Zure minaz hitz egitea eta besteena entzutea. Konparaziorik egin gabe; errespetuz. Indarkeriaren inpaktuari buruz hitz egitean sortzen diren gatazkak eta guzti. Esaldi oso gogorak entzun ziren, eta une oso latzak bizi izan genituen. Dena bertan behera utzi eta alde egiteko gogoia ere izan zuen hainbatek. Hitz egitea bezain gogorra izan zen entzutea ere; gogorra, oso gogorra izan zen, eta barru-barrura iritsi zitzaigun, zeren entzuten genuena barruan genuenarekin nahasten baitzen eta, nola edo hala, ez zuen alde handirik gurearekin. Hori guztia entzun ostean, pentsatzen hasi eta zeure buruari zera esaten diozu: zuek ere hori bizi izan duzue? Eta une horretan denok berdinak ginela sentitzen hasi ginen. Beste aldeko historia entzunda, saminaren eta sufrimenduaren sentazioa jaso genuen. Gu bezalako jendeak kontatutako historiak ziren eta ongi ezagutzen genuen kontatzen zuten hori, geuk ere pertsonalki bizi izan genuelako. Eta hori barru-barrura iristen da: bestearen larrutan jartzen zara. Sufrimenduari aurpegia jartzen diozu, ez da albiste hutsa eta zenbat eta aniztasun handiagoa izan, besteenganako hurbiltasuna orduan eta handiagoa da. Ezberdintasun politikoak alde batera utzi eta pertsonengana hurbiltzen zinen, haien oinazearekin bat egiten zenuen, gauza asko dituzulako komunean, konnotazioak konnotazio. Hain agerikoak diren gauzak ez onartzea oso bidegabea da, eta horretaz konturatzea oso tristea ere bada.

Zenbait kasutan eta, batik bat, komunikabideen bitartez, gertatutakoaren berri izan bagenuen, baina beste hainbat kasutan historia erabat ezezagunak ziren guretzat. Historia jakin batzuk lehen aldiz entzuten dituzunean ezjakintasun handia dagoela konturatzen zara eta, bereziki, aspaldiko kasuetan; eta jende horren guztiaren bakardadearekin eta abandonuarekin konektatzen duzu. Zeren «aspaldikoa» izanagatik ere, indarkeria horren ondorioak gaur arte iristen baitira.

Bakoitzak bere esperientziatik hitz egiten zuen. Hasieran, bestea zein «aldetan» dagoen bagenekiela pentsatuta kokatzen genuen geure burua edo, hobeto esanda, bestea, ustez, «beste aldean» dagoela pentsatuta. Hala ere, kontzeptu horiek geure artean ulertzeko erabiltzen genituen arren, hasiera-hasieratik konturatzen hasi ginen elkar ulertzen hasiak

ginela, guztiok alde berean geundelako. Batzuen eta besteen estereotipoez jabetzen hasi ginen. ETAREN terrorismoaren biktimek babes eta laguntza handia zutela uste genuenok zera ikusi ahal izan genuen, utzikeria handia pairatu behar izan dutela eta zenbait kasutan erabiliak ere izan direla, asmo politikoeekin. Alde batean sufrimendua eta ikara baino ez zeudela uste genuenok zera ikusi ahal izan genuen, beste pertsona batzuk ere biktima izan direla hein berean eta ez dutela errekonozimendurik izan. Eta prozesu horren guztiaren ondorioz, eraildako guardia zibil baten edo eraildako militar baten seme-alabek eraildako militante abertzaleen seme-alabekin bihotzez hitz egin zuten.

Geure esperientziak partekatuta, bestearengana hurbiltzeko saiakerak ikus zitezkeen, bileretan bertan edo atsedendaldietan. Baina dena ez zen izan entzutea eta sentitzea; ikamikak ere izan ziren. Hitz mingarriak. Edo eztabaida ideologikoak; zeren gauza askotan ez baientzen bat.

Batzuek barrenak hustu genituen negarrez, arrazoirik izan gabe; beste batzuek barkamena eskatu genuen bileran esandako zenbait gauzarengatik. Eta horixe da garrantzitsuena. Hasierako aurkezpenak biziki garrantzitsuak izan ziren, giro atseginean egin ziren kontakizunak oso krudelak ziren arren; baina izotzaldia urtzeko balio izan zuten eta nabaria zen gero hobeto geundela.

Hizkuntza komunaren bidean

Esperientzia pertsonaletatik abiatuta elkar ezagutzen hasteko prozesuaren ondoren, hainbat kontzepturi buruz hitz egin genuen; besteak beste, biktima kontzeptuari eta terrorismoaren biktima kontzeptuari buruz. Hori izan zen abiapuntua, eztabaida hori aspaldian gertatzen ari baita gizartean eta erakundeetan. Terrorismoaren biktima izendapenaren bitartez batzuk identifikatzen ziren baina ez beste batzuk. Biktima hitza bera ere ez genuen gustuko eta luzaroan aritu ginen horretaz. Ez genuen hitz egokia topatzen baina, hala ere, biktima hitza erabiltzen jarraitu genuen bai batzuk bai besteak aipatzeko; eta kontakizun honetan ere hitz hori erabili dugu.

Zenbaiten kasuan, ETAREN biktimak zuzenean ezagutzea ezusteko galanta izan zen, uste baitzuten ETAREN biktima izate hutsagatik gertatutakoa gainditzen laguntzeko erakundeen babesa eta kalte-ordainak jasotzen zituztela; eta konturatu ziren pertsona horiek ere asko borrokatu behar izan zutela, arazoak izan dituztela eta babesa ere eskasa, baina jendeak ez daki hori. Nabarmendu zenez, kasu askotan, prentsan ateratzen diren ETAREN biktimen errealitatea ez dator bat beste batzuek egunerokotasunean modu anonimoan bizi dutenarekin. Beste zenbait kasutan, torturaren edo GALen biktima baten esperientzia ezagutzea ohiko moduan onartzen ez diren gauzak edo oso urrundik ikusten direnak aintzat hartzea izan zen. Azken batean, sufrimendua berdina dela ikusi genuen, eraildakoen lanbidea gorabehera, baita partekatzen genuenari eman behar zaiola garrantzia ere, ez bereizten gaituenari.

Hizkuntza komuna bilatzen saiatu ginen. Behin, terrorismoaren biktimaren definizio bat eman ziguten eta zenbaiten ustez definizio horrek kortse baten moduan estutzen gintuen. Hala ere, puntu komun asko topatu genituen, batzuk eta besteak ere biltzen gintuzten puntu komunak. Beste behin, abiapuntua ez zen definizio bat izan eta gure esperientziak askoz puntu gehiagotan ere berdinak direla ikusi genuen. Batzuetan definizioek ez gaituzte hurbiltzen eta beste hizkuntza bat bilatu behar izaten dugu gure esperientziarako. Guretzat baliagarria izango den hizkuntza, guztiok biltzen gaituena.

Ariketa hori oso garrantzitsua izan zen baina ezin izan genuen kontzeptu bakarra adostu. Konturatu ginen kontzeptuak ez direla garrantzitsuak; bai, ordea, gure esperientziak islatzen duena. Anbibalentzia eta zailtasuna ere ikasbide dira; beraz, honako hau onartu behar dugu: gauza jakin batzuetan prozesua mantsoagoa dela eta hitzak anbiguoak eta mugatuak direla errealitatea adierazteko garaian.

«Giza eskubideen urraketaren biktima» kontzeptuari buruz gure iritzia ere eman genuen. Gu guztiok biltzen gaitu horrek; giza eskubideen urraketan biktima gara guztiok eta hori partekatzen dugu. Dena dela, gai horri buruz jardun genuenean zehaztapenak eta eztabaidak izan genituen, ideologikoak batzuetan eta hizkuntzaren formaren garrantziari buruzkoak besteetan. Zenbaiten ustez, izendapen horrekin, gertatutakoa hein batean minimizatu egiten da, bereziki, «terrorismoaren biktima» izendapenarekin alderatuz gero; izan ere, une jakin batzuetan zigorgabetasuna eta ahanztura izan ziren nagusi eta egoera oso latzak bizi izan zituzten, eta orain horri giza eskubideen urraketa deitzea urraketa ez hain larriekin parekatzea bezala izan daiteke. Jende askok bizi izandako terrore-errealitateak ez ditu behar beste biltzen. Eta beste horrenbeste gertatzen da «motibazio politikoko indarkeriaren biktimak» etiketarekin ere. Denak ados geunden garrantzitsua bezain zaila dela gu guztiok bilduko gaituen izendapen komuna bilatzea, betiere jasandako urraketak minimizatu gabe. Baina, bereziki, honako honetan geunden ados: hizkuntza-arloko ezberdintasunek biktimen eskubideetan eta biktimei emandako tratuetan ezberdintasunik ez dutela ekarri behar.

Errekonozimendua eta kalte-ordaina

Errekonozimenduaren, justiziaren eta kalte-ordainaren gaiei buruz hitz egin genuen, betiere erakundeen eta gizartearen aldetik. Jazotako guztiaren errekonozimendua falta zen sentsazioa genuen, batez ere, erakundeen aldetik eta, beste zenbait kasutan, errekonozimendu moral, sozial eta baita ekonomiko hori ere berandu, oso berandu iritsi zela, igarotako denbora kontuan izan gabe. Kasu batzuk ez ziren inoiz ikertu, ez zuten inolako errekonozimendurik izan, ezta kalte-ordainik jaso ere, eta utzikeria eta beharra nagusi izan diren linbo batean bizi izan dira urte askotan, baita hamarkada askotan ere; beste kasu batzuetan legezko errekonozimendua edo errekonozimendu judiziala izan duten arren, kaltea, heriotza, tortura edo mehatxua egin dutenek eta praktika horiei babesa eman dietenek edo horren aurrean ezer esan ez dutenek dagokien erantzukizuna onartzea falta da. Alegia, sufrimendua eragin duten guztien errekonozimendua behar da, urraketa horiek egin dituzten pertsona guztiena.

ETAren biktimen errekonozimendu-egintzak positibotzat hartu ziren. Baina, biktima horiek inolako errekonozimendurik gabe luzaro egon ziren hein berean, beste batzuk baztertuta sentitu dute beren burua eta, batzuetan, oraindik ere hala sentitzen dute, eta ez dute errekonozimendurik jaso ez erakundeen, ez gizartearen aldetik, beren gertu-gertukoak kenduta. Errekonozimendua oso garrantzitsua dela adostu genuen denok, duintasun jakin bat gaitzetsia izan delako eta errealitate jakin bat ukatua izan delako askotan. Funtsezkoena zera da, gu guztiok berdintzat hartzea, bai gertatutakoaren larritasunaren alderdi guztietan, bai urratutako eskubide guztiei dagokienez; izan ere, bestela, ezinezkoa da errekonozimendua jaso duzula sentitzea.

ETAren zenbait biktimaren ustez, errekonozimendu masiboen etapa gaudituta dago eta kontua ez da ekintza berdinak behin eta berriz errepikatzea; jada errekonozimendua jaso dutela sentitzen dute. Beste hainbaten ustez, tokiko memoria oso garrantzitsua da.

Batzuetan, pertsona jakin batekiko errekonozimendu-egintzaren bat dagoenean, horrek beste pertsona batzuk mintzen ditu, jende anonimo askok ez duelako horrelako egintzarik izan. Egintza horien erabilera politikoa saihestu behar dela erabaki genuen guztiok, zeren lagundu beharrean, kalte egin baitigu horrek.

Gure bilera elkarrekiko errekonozimendu-egintzat har zitekeen, baina gizarte osoari begira, biktima guztientzat zerbait egitea oso zaila eta manipulatzeko arrisku handikoa zela uste genuen. Bestalde, gure arteko zenbait biktimak ez zion zentzurik hartzen indarkeria amaitzen ez bada, giza eskubideak urratzen edo mehatxuak jasotzen jarraitzen bada, eta aldaketa sakonagoak egiten ez badira. Gure bilerak izan zirenean, indarkeria-giroa eta polarizazio politikoa oso handiak ziren oraindik eta gure esperientzia giro horretatik babestu nahi izan genuen, baina ezin genuen ezikusiarrena egin.

Askotariko biktimen egintza bateratuak egitea oso zaila zela iruditzen zitzaigun, bereziki, komunikabideetan emango zioten tratamenduagatik. Komunikabideetako manipulazioaren arriskua beldur iraunkorra izan da gure esperientzian, eta horrek zer pentsatua eman beharko luke.

Gure ustez, erakundeen egintza bateraturen bat egin ahal izango da noizbait, baina horretarako mesfidantza ere gainditu behar da, prozesu bat abiarazi eta keinu sinesgarriak egin, errekonozimendurik eta kalte-ordainik izan ez duten biktimei besteen pareko direla eta eskubide berdinak dituztela sentiarazten laguntzeko. Errekonozimendua edo memoriaren aldarrikapena ezeren kontra baino gehiago, zerbaiten alde izatea lortu beharko genuke. Bakea eta elkarbizitza lortzen lagundu nahi dugulako gaude hemen. Guk geure aldetik borondatea jarriko dugu eta gizarteak bere bidea egin dezan nahi dugu.

Kalte-ordain ekonomikoaren gainean ere hitz egin genuen; gure ustez munduko diru guztiak ere ezin izango luke gertatutakoa ezabatu, baina inolako kalte-ordainik ez izatea, kasu askotan, bizi izandako esperientzia eta samina minimizatzen har daiteke, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Gure ustez, errekonozimendua eta laguntza ekonomikoak emateko ahaleginak (lege berriekin loturik dago) laguntza praktikoaren balioa du eta oraindik behar-beharrezkoa da. Estatuak laguntza emateak balio sinbolikoa ere badu, eta are gehiago Estatuaren zenbait funtzionario edo ordezkari indarkeriazko gertakarietan inplikaturik egon zirela kontuan izanik. Izan ere, bere garaian, Estatuak ez baitzuen jakin pertsona horiek behar bezala babesten, edo ez zuen nahi izan, eta kaltea egin ostean ere ez baitzuen jakin pertsona horiek justiziaz eta gizatasunez artatzen, edo ez zuen nahi izan. Errekonozimendu hori ez da erabili behar posizio politikoak irabazteko edo besteren aurkako arma gisa. Gai politiko eta ideologiko askori buruz ez gara ados jarri oraindik, baina, gu bezala, indarkeria motaren bat jasan duten pertsonen errekonozimenduari dagokionez, guztiok ados gaude. Eta hala ere elkarrekin lan egin dezakegula egiaztatu dugu, betiere giza eskubideak, bizitzak eta integritate pertsonala errespetatzeko oinarri etikoa abiapuntu hartuta.

Gure taldeko jende askok ez du errekonozimendu hori ere izan. Arian-arian, gauzak aldatzen ari direla sumatzen dugu baina oraindik asko dago egiteko, asko dago gogoratzeko, asko ikertzeko egia bilatzearen, asko kontatzeko, biktima edo kalte-egilea nor den gorabehera. Egiten den guztiak zentzu bat izan behar du guretzat; hain zuzen

ere, guztiok bizi izan ditugun esperientziarik berriz ere ez gertatzeko zentzua, egindako kaltearen zati bat konpontzeko.

Begiratu zabalagoa, errespetuzkoa

Topaketa hauetako asko bileretan ez ezik, eguneroko bizitzako espazioetan ere izan ziren. Lan handia izan zen, bai bakoitzak kontatu eta entzun zuenagatik, bai bakoitzaren hitzetan ulertu, kontrolatu nahi zen horregatik, ikusi nahi izaten ez ditugun gauza asko bat-batean batera ikusteagatik. Benetan egiazko zerbaitetara iristen ari ginela sentitzen genuen, pertsona eta esperientzia guzti-guztiak errespetatuta. Gure herriko kontraesan eta bizitza guztiak, isiltasunak eta haustura guztiak gela berean biltzea bezala zen. Saio bat amaitzen zenean, atsedena behar izaten genuen, ateratzea, paseotxo bat ematea, zigarro bat erretzea, besarkada bat jasotzea. Eta gero hurrengo «gaiekin» jarraitzen genuen. Horri esker, geure buruari buruzko gauza asko partekatu genituen eta bestearen esperientziak hunkidura ere eragin zigun. Eztabaidak zentzuzkoak ziren, buruarekin egiten genituen, baina beste nonbait beste zerbait sentitzen genuen, erraietan, zerbait biziagoa eta sendoagoa, eta batzuetan besarkada bihur zitekeen edo, gaiaren arabera, eztabaidatzen jarrai genezakeen, beti ez ginelako ados jartzen.

Atsedenaldiak, egunerokotasuna partekatzea edo beste gai batzuetaz hitz egitea lagungarria zen tentsioa gainditzeko eta, aldi berean, han entzundakoaren oroitzapen asko geratu zaizkigu. Bazkaldu, afaldu eta gosaldu egiten genuen, baina ez beti jende berarekin; iritsi ahala esertzen ginen eta gustura egoten ginen ondoan genuenarekin. Gutariko zenbaitek ez zuen pentsatu ere egingo pertsona jakin batzuekin bakarka paseatzen, kafea hartzen edo hizketan egongo zirenik sekula, gauza gehiegik bereizten zituztelakoan baitzeuden. Horrelakorik gertatzea ezinezkoa zela pentsatzen genuen.

Etxera itzultzea: beldurrak eta aukerak

Talde bakoitzaren bileren amaieran, galdera bera ateratzen zen beti: itzulera. Berriz ere gure bizitzara itzultzea, gure jendearekin. Hau guztia hemen bukatuko al da? Egin dugun hau gizartean, gure herri edo hirietan egin al daiteke? Bizi izandako esperientzia biziki positibotzat jotzen genuen baina, horrekin batera, zalantzak eta beldurrak agertzen ziren, baita itxaropenak ere: jendeak esperientzia hau gaizki interpretatzeko beldurra eta erreakzio txarrak jasotzekoa, gizaki gisa eta ideologikoki gertuen ditugun pertsonengandik hain justu; «beste aldera» igaro garela iritzi eta arbuiatuko gaituzten beldurra; batzuek sinesgaitzak direlako, beste batzuek erabilera politikoa dagoela esango dutelako, eta beste batzuek politikoki erabili nahi izango dutelako edo manipulatu nahi izango dutelako.

Zalantza txiki horiekin batera, gutariko zenbaitek ingurune hurbilean gauzak adierazteko erraztasun handiagoa lortu dugu, lehen isildu egiten genituen gauzak hitz egiteko erraztasuna eta ekitaldi publikoetan parte hartzeko erraztasuna; eta hori guztia askoz ere zailagoa izango zen lehenago. Apurka-apurka, han egindakoaren berri eman diegu ingurukoei; gainerakoek ere jakitea nahi genuen, nahiz eta ez jakin zer gertatuko zen. Itzulerako bidaiak ez zuen inolako zerikusirik izan lehenengo bidaiarekin. Hona hemen zabaltzeko irudi egoki bat: aireportura joateko bidaia, edo autobusera igotzen ari ginenekoa, eta itzulerakoa: bi argazkiak erakustea, hasiera eta amaiera ematea, baina, zer gertatu da tartean? Gutariko asko zama astun batekin joan ginen eta itzuleran motxila hori atzean utzi genuela iruditzen zitzaigun. Denbora joan, denbora etorri,

arrasto bat bezala, egun haietako esperientzia handitu eta handitu ari da, eta gu, aldiz, indartsuago bihurtu gara.

Bilerak ebaluatzeko garaian, oso positiboak izan zirela esan behar dugu. Beste pertsona batzuen saminetara eta sufrimendu-esperientzietara irekitzen lagundu digu, gure historien antzeko bizipenak dituzten pertsona konketuak ikusita. Ni bezalako beste seme bat, beste emazte bat, beste neba bat. Gure ingurunearekiko konpromiso bat ere izan da; urrun nahi dugun esperientzia, geure sufrimenduarekin edo ideiekin itsututa gaudelako ikusten ez duguna, besteei ikusaraztea.

Hitz egin, partekatu, sozializatu

Hasieran, eta aldi baterako, gure esperientzia isilpean izatea erabaki genuen, giro politikoa eta gizarteko giroa negatiboa zelako eta bizi izandako esperientzia hori manipulatu edo desitxuratzeko arriskua beti hor zegoelako. Beraz, diskrezioz jokatzeko konpromisoa hartu genuen eta, aldi berean, gure ingurunean bertan beste jarrera bat izaten saiatzen ginen. «Guretarrek» ez ulertzea ere kezka-iturri handia izaten zen. Nola azalduko diot politika aldetik gertuko dudan gure taldeko edo gure elkarteko jendeari zer egin dugun? Pertsona honekin edo beste horrekin batera egon naizela eta entzuteaz gain, ulertu ere egin nautela? Nola azaldu bide berria irekitzera goazela? Beraz, azken urte hauetan, beldur horrekin eta itxaropen horrekin bizi izan gara.

Askotariko taldea gara, gutariko zenbaitek indarkeria guk geuk jasan dugun arren, ez dugu maite dugun inor galdu, eta agian gainerakoen ondoan arraro samar ikusten genuen geure burua, baina hala ere, mota askotako erasoak eta galerak jasan dituzten pertsonak izatea ezinbestekoa zela uste dugu, baita aberasgarria ere, guztiontzat.

Gure esperientziaren hazia

Bai Glencree bai Santa María de Mave herri lasaiak dira, isolatuak eta hango giroak hausnarketa egitera bultzatzen du, mundutik at dauden tokiak dira; han geundela, garrantzitsuena elkarrekin egotea zen, mundutik, albisteetatik eta interferentzietatik isolatuta, hein batean. Orain horrela gogoratzen ditugu egun haiek, guretzat toki bereziak direlako orain, edukia duten tokiak, gauza asko bizi izan genituen tokiak; eta gauza asko utzi eta jarri genituen han. Dela hurbiltasuna sustatu zuen distantzia horregatik, dela hitz egiteko, entzuteko eta pentsatzeko astia hartu genuelako, dela, gertakariak zerrendatzeaz gain, hausnarketa egiteko aukera izan genuelako, esperientzia oso sakona izan zen: sufrimendua partekatzea, kontrako ideiak aurkeztea eta entzutea, tentsio eta zailtasun handiko uneak, aurpegi serioak, distantzia, mesfidantza, errespetua eta gorabehera handiak emozioen intentsitatean... hori guztia taldean gainditu genuen eta taldetik kanpo hitz egin eta partekatzen genuen guztiari esker. Eta halaxe izan behar zuen. Ez bazen gorabeherarik izan, tentsio-tontorrik gabeko gertaera laua izan balitz, ez zukeen zentzurik izango, ez zukeen funtzionatuko inola ere.

Egun haiek elkarrekin igaro ostean, gutariko zenbaitek (ez denek) harremanetan jarraitu dugu, zeren lehen ezertaz ezagutzen ez zenituen pertsona horiek lagun bihurtu baitira baina, batez ere, aldizka biltzea erabaki genuelako, elkarrekin lanean jarraitzeko, bidea egiten, entzuten, hitz egiten, eztabaidatzen.

Beti iruditu izan zaigu garrantzitsua dela hasitako horri eustea, barruan dugun hazia pixkanaka-pixkanaka garatzeko. Eta horrexegatik, hain justu, idatzi genuen kontakizun hau elkarrekin. Horixe du bere balioa. Ez bakoitzak bere historia kontatu, besterena entzun eta onartzea soilik, baizik eta ibilbide honen historia bat osatzea, guztion historia. Eta gizartearekin partekatu nahi dugun historia. Oraindik ere manipulazioaren beldurra hortxe dugu, hau guztia jendeari ezagutarazten zaionean erabilera politikoa eta mediatikoa egingo dioten beldur; beraz, gauza bakarra eskatzen dugu: errespetua eta begirunea izatea; guk ekarpen xumea egin nahi izan dugu, xumea baina balio handikoa, partekatutako elkarbizitzaren alde eta giza eskubideen errespetutik abiatuta. Gure taldeko kideren batek eraso edo kritikaren bat jasotzen badu gurekin bildu delako eta hitz egin duen moduan hitz egin duelako, talde osoaren aurkako eraso edo kritikatzat hartuko genuke eta horregatik mesfidati ere bargaude.

Bestalde, egia esan, ingurune hurbilenean eta, bereziki, familia giroan, ekimen honek harrera oso ona izan du; agian denak ez dira beti ados egon, baina errespetua eta babesa eman digute. Ezusteko atseginak ere izan ditugu: pertsonaren bati honen berri eman eta erreakzio positiborik espero ez bagenuen ere, horrelako zerbait gertatzen ari zela jakin duenean asko poztu da. Gure esperientzia kritikatu edo gaitzesten duten horiei, erantzun bakarra emango diegu: beraiek ere bizi dezatela horrelako zerbait, beste giro bateko pertsonaren batengana hurbildu eta harekin zerbait parteka dezatela, errespetuz, eta orduan, agian, beste ikuspuntu batetik hitz egin ahal izango dute. Garrantzitsuena bizitzea eta sentitzea da; gauzak adierazteko eta esateko beste modu bat da eta, batez ere, beste pertsona bat eta bere historia entzutekoa. Historia horiek oso hunkigarriak dira, entzunez gero. Eta hunkidura horrek kontzientzia eragiten du.

Azkenean, esperientzia polita geratu zaigu, positiboa, hasieran pentsaezina zena, baina bukaeran egingarria eta aberasgarria. Gure ustez, gero eta jende gehiagok behar du horrelako gauzak gertatzea, espazio kolektiboa sortzea sufrimenduaren inpaktua, memoria eta errekonozimendua lantzeko. Mundu hobea eraiki behar dugu gure ondorengoentzat; gure seme-alabek eta bilobek bizimodu hobea izan dezaten, alaiagoa, ezberdina. Gure asmoa ez da izan ezinikusia edo mendekua transmititzea, ezta hurrik eman ere. Ez dugu nahi beste belaunaldi batek sufrimenduarekin edo indarkeriarekin bizitzen jarraitzea. Hau guk egin behar dugu, guri dagokigu lan egitea hori lortzeko.

Gure esperientziaren kontakizun honetan ez ditugu bildu xehetasun guztiak, eztabaidak, partekatutako esperientziak, desadostasunak, besarkadak edo gatazka guztiak. Oraindik ere polarizazioa edo jarrera kontrajarriak eragiten dituzten gaiak, hau da, barkamena, adiskidetzea edo zigorgabetasuna, gizartean ere landu behar diren gaiak dira. Baina aurrera egin dugu; aurrera partekatutako eskubideak, biktimen duintasuna eta jasandako guztia entzuten, ezagutzen, errespetatzen eta onartzen. Kontakizun hau prozesu horren lekuko da. Gure gizartearen errealitatea osatzen duten pertsonen eta bizipenen puzzlea ez dago desegina; arraila handiak ditu baina, gure ustez, eta pairatu dugun inpaktu izugarritik abiatuta bizi izan dugunez, puzzlea osatzeko gai izango gara bakoitzak egindako ekarpenekin, betiere piezak behar adina gerturatzen badira.

LISTADO DE FIRMANTES DE LA INICIATIVA «GLENCREE»

AGUIRIANO, IÑAKI: hijo de Victoriano Aguiriano y María Ángeles Barandiarán, muertos tras ser tiroteados el 16 de octubre de 1982 en un control de la Policía Nacional en Vitoria.

ARRESE, JAIME: hijo de Jaime Arrese Arizmendiarrreta, dirigente de la UCD de Guipúzcoa, asesinado por los Comandos Autónomos Anticapitalistas en Elgoibar el 23 de octubre de 1980.

BROUARD, EDURNE: hija de Santiago Brouard, médico de Bilbao, dirigente de Herri Batasuna, asesinado por los GAL en su consulta el 20 de noviembre de 1984.

CUADRADO, TRINI: viuda de Miguel Arbelaz, militante de HB, asesinado por el BVE en Hernani el 7 de setiembre de 1980.

ELOLA, PATXI: Concejales del PSE de Zarautz, víctima de numerosos ataques contra su negocio y objeto de amenazas personales (dianas, pintadas....) en su pueblo.

GALDEANO, CARMEN: hija de Xabier Galdeano, delegado del periódico *Egin*, asesinado por los GAL en San Juan de Luz el 30 de marzo de 1985.

GARRIDO, FERNANDO: hijo de Rafael Garrido Gil, Gobernador Militar de Guipúzcoa, asesinado por ETA en San Sebastián el 25 de octubre de 1986. En el mismo atentado mueren, asimismo, su madre Daniela Velasco y su hermano pequeño Daniel.

GONZÁLEZ, MARIBEL: viuda de Alberto Soliño, asesinado en Eibar el 12 de junio de 1976 por un guardia civil a la salida del certamen de canción vasca que se celebraba en el *Jai Alai*.

GONZÁLEZ, SENEN: hijo de Manuel González Vilorio, secretario del Ayuntamiento de Ispaster, asesinado por ETA en ese mismo pueblo el 18 de junio de 1984.

GURIDI, AMAIA: viuda de Santiago Oleaga Elejabarrieta, Director Financiero de *El Diario Vasco*, asesinado por ETA en San Sebastián el 24 de mayo de 2001.

HERNÁNDEZ, M^a CARMEN: viuda de Jesús M^a Pedrosa, concejal del PP en Durango, asesinado por ETA en la misma localidad el 4 de junio de 2000.

ILLARRAMENDI, CARMEN: viuda de Jesús Mari Ijurko, miembro activo de HB y Gestoras, herido muy grave en atentado perpetrado por el BVE en Rentería el 28 de marzo de 1980. Carmen también resulta herida en el mismo atentado.

LASA, ARANTXA: hermana de Josean Lasa Arostegi, secuestrado, torturado y asesinado y cuyos restos mortales son encontrados en Alicante en 1985, aunque no serán

identificados hasta 1995. Fueron condenados los miembros de la Guardia Civil Rodríguez Galindo, Dorado Villalobos y Bayo Leal.

LASA, AXUN: hermana de Josean Lasa Arostegi, secuestrado, torturado y asesinado y cuyos restos mortales son encontrados en Alicante en 1985, aunque no serán identificados hasta 1995. Fueron condenados los miembros de la Guardia Civil Rodríguez Galindo, Dorado Villalobos y Bayo Leal.

MERQUELANZ, ANA: hija de Martín Merquelanz, taxista de Irún, asesinado por el BVE en Oiartzun el 24 de mayo de 1978.

MOTA, JORGE: hermano de Ángel Mota Iglesias, funcionario de prisiones, asesinado por ETA en San Sebastián el 13 de marzo de 1990.

OLANO, JOKIN: herido por torturas infligidas por la Guardia Civil el 30 de julio de 1983.

PAREDES, MIKEL: hermano de Juan Paredes Manot «Txiki», fusilado por el régimen franquista el 27 de septiembre de 1975.

PÉREZ JAUREGUI, JORGE: hermano de Roberto Pérez Jaúregui, asesinado en Eibar el 8 de diciembre de 1970 cuando participaba en una manifestación contra el proceso de Burgos.

REGAÑO, LEONOR: viuda de Manuel Jodar, artificiero de la Policía Nacional, asesinado por ETA en Bilbao el 24 de mayo de 1989.

SANTAMARÍA, SANTOS: padre de Santos Santamaría, *mosso d'escuadra* asesinado por ETA en Rosas el 17 de marzo de 2001.

SARDUY, MILAGROS: viuda de Jesús María Etxebeste, agente de aduanas de Irún, asesinado por ETA en la misma localidad el 28 de agosto de 1980.

SUSAETA, BEATRIZ: viuda de Tomás Alba, concejal de HB en San Sebastián, asesinado por el BVE en Astigarraga el 28 de septiembre de 1979.

VERA, MARILÓ: hija de Jerónimo Vera García, miembro de la Guardia Civil, asesinado por ETA en Pasajes el 29 de octubre de 1974.

ZABALZA, LURDES: hermana de Mikel Zabalza, apareció muerto en el río Bidasoa tras haber sido detenido por la Guardia Civil. Según todos los indicios, murió tras sufrir torturas el 26 de noviembre de 1985.

INTEGRANTES DEL EQUIPO DINAMIZADOR DE LA INICIATIVA

BILBAO ALBERDI, GALO

IBAÑEZ DE OPACUA ANDUEZA, JULIÁN

MARTÍN BERISTAIN, CARLOS